



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2018KO UZTAILAREN 2KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2018.07.02.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.

### **Zinegotziak:**

Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Mendiko lanen esleipena.
- 3.-Jose M. Ordoqui Almandoz jauna: oihan aprobetxamendu eskaera.
- 4.- Hiri jarduketarako Plan Berezia (5. poligonoko 742. lur zatia): behin betiko onespena.
- 5.-Usaineko Borda-Burdingurutz alderdiko bidea moldatzeko obra.
- 6.- Katastroko balorazio txostena: hasierako onespena.
- 7.-Esther Burlada Arocena andrea: herriko kalea okupatzeko eskaera.
- 8.-Ana Larretxea Apezetxea andrea: herriko kalea okupatzeko eskaera.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.**

2018ko ekainaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2018ko ekainaren 21ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.**

Udal honek Basarte S.L. enpresak egindako proiektuan bilduak diren Ametxoko eta Apittako alderdietan mantenimendu eta bakantze lanak eta zerrakura biltzea esleitzeko gonbidapenak igorri zitzaizkien Berdabio Basogintza S.L., Pako Altzuri S.L., Repoblaciones Etxarte S.L. eta Carlos Txoperena Matxikote enpresei.

Lan horien aurrekontua 9.974,33 eurokoa da, BEZ barne.

Hauek izan ziren aurkeztutako proposamenak:

-Berdabio Basogintza S.L.: 9.375,00 euro, BEZ barne.

-Carlos Txoperena Matxikote: 9.675,10 euro, BEZ barne.

-Repoblaciones Etxarte S.L.: 9.375,00 euro, BEZ barne.

Berdintasuna izan ondoren bi enpresen artean, gonbidapen berria luzatu zitzairen hiru enpresei epe berria irekiz proposamenak aurkezteko.

Epean barne bakarrik Berdabio Basogintza S.L. enpresak aurkeztu du bere proposamena: 9.310,00 euro, BE barne.

Ondorioz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Berdabio Basogintza S.L. enpresari aipatutako lanak egiteko esleitzea, 9.310,00 eurotan, BEZ kanpo, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

3) Halaber jakinaraztea obrak 2018ko abuztuaren 31rako eginak egon behar dutela.


4) Ebazpen hau Berdabio Basogintza S.L.enpresari jakinaraztea.

### **3.-JOSE MARIA ORDOQUI ALMANDOZ JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDU ESKAERA.**

Jose Maria Ordoqui Almandoz jaunak Aranibar alderdian dauden zuhaitzen (platanoak, akaziak, haritzak) aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 796. lur zatian).

Jose Maria Ordoqui Almandoz jaunak Aranibar alderdian dauden zuhaitzen (haritzak) aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (entresaka, 6. poligonoko 103. lur zatian).

Jose Maria Ordoqui Almandoz jaunak Aranibar alderdian dauden zuhaitzen (akaziak eta platanoak) aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (entresaka, 5. poligonoko 1. lur zatian).



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

Jose Maria Ordoqui Almandoz jaunak Aranibar alderdian dauden zuhaitzen (akaziak eta haritzak) aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (entresaka, 6. poligonoko 360. lur zatian).

Jose Maria Ordoqui Almandoz jaunak Aranibar alderdian dauden zuhaitzen (haritzak) aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (entresaka, 6. poligonoko 102. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Maria Ordoqui Almandoz jaunak eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **4.-HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA (5. POLIGONOKO 742. LUR ZATIA): BEHIN BETIKO ONESPENA.**

2018ko maiatzaren 7an egindako bileran Udal honek erabaki zuen Ana Isabel Telletxea Iraola andreak eta Javier Gago Balda jaunak aurkeztutako Hiri-jarduketarako Plan berezia hasiera batez onestea (Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 742. lur zatian).

Akordio 2018ko maiatzaren 24ko 99. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta prentsan ere bai, epea irekiz alegazioak aurkezteko.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1. artikulua jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ana Isabel Telletxea Iraola andreak eta Javier Gago Balda jaunak aurkeztutako Hiri-jarduketarako Plan berezia behin betikoz onartzea (Arantzako Udal Katastroko 5. poligonoko 742. lur zatian).

2) Espedientea Nafarroako Gobernura igortzea.

3) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **5.-USAINEN BORDA-BURDINGURUTZ ALDERDIKO BIDEA MOLDATZEKO OBRA.**

Gai hau ehiztariekin bilera egin arte utzi da mahai gainean.

**Igor Ugalde Salazar jauna sartu da bilera aretora.**

## **6.- KATASTROKO BALORAZIO TXOSTENA: HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik Tracasa enpresak egindako Arantzako udal mugapeko balorazio txostena berrikusteko proiektua.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 36.4 artikuluekin jarraituz,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako udal mugapeko balorazio txostena berrikusteko proiektua hasiera batez onartzea.

2) Batzorde Mistoan Udalaren ordezkari ondoko hauek izendatzea: Mentxu Peña Lizarazu andrea, Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna eta Jose Javier Mitxelena Ordoki jauna.

3) Balorazio txostenaren proiektua jendaurrean jartzea 20 egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Jendaurrean egoteko epe horretan, balorazio txostenaren proiektua interesdunen eskura egonen da udal bulegoetan, bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak, kexak edo oharrak aurkez ditzaten.

## **7.-ESTHER BURLADA AROCENA ANDREA: HERRIKO KALEA OKUPATZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Esther Burlada Arocena andreak aurkeztutako idatzia, Goiko Karrikan, uztaila eta abuztuan mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena eskatuz.

Ikusirik indarrean dagoen bide publikoko eta herri lurretako zoru, hegaldura eta zorupeko probetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Kontuan hartuz helburua espaloiak ez okupatzea dela, bizilagunei segurtasun leku bat ematea, eta ibilgailuak ibiltzeko arazorik ez izatea ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Esther Burlada Arocena andreari uztaila eta abuztuko hilabeteetan Udalak markatuko duen tokian mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena ematea, indarrean dagoen ordenantzaren arabera dagokion prezio publikoa ordaintzeko baldintza pean (hileko 30,00 euro/ml).

2) Eskatzaileari jakinaraztea baimena baldintzatua dagoela trafikoa ez oztopatzeroa, espaloia eta kalea beti libre uztera, bizilagunek eta ibilgailuek oztoporik izan ez dezaten ibiltzeko.

3) Eskatzaileari jakinaraztea espaloia ez okupatzea bere ardura eta kontrola dela; hori ez betetzea isuna ekarriko luke.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Ebazpen hau eskatzaileari jakinaraztea.



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## **8.-ANA LARRETXE APEZETXE ANDREA: HERRIKO KALEA OKUPATZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Ana Larretxea Apezetxea andreak aurkeztutako idatzia, Goiko Karrikan, uztaila eta abuztuan mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena eskatuz.

Ikusirik indarrean dagoen bide publikoko eta herri lurretako zoru, hegaldura eta zorupeko probetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Kontuan hartuz helburua espaloiak ez okupatzea dela, bizilagunei segurtasun leku bat ematea, eta ibilgailuak ibiltzeko arazorik ez izatea ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ana Larretxea Apezetxea andreari uztaila eta abuztuko hilabeteetan Udalak markatuko duen tokian mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena ematea, indarrean dagoen ordenantzaren arabera dagokion prezio publikoa ordaintzeko baldintza pean (hileko 30 euro/ml).

2) Eskatzaileari jakinaraztea baimena baldintzatua dagoela trafikoa ez oztopatzera, espaloia eta kalea beti libre uztera, bizilagunek eta ibilgailuek oztoporik izan ez dezaten ibiltzeko.

3) Eskatzaileari jakinaraztea espaloia ez okupatzea bere ardura eta kontrola dela; hori ez betetzea isuna ekarriko luke.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Ebazpen hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 72. ebazpenetik 78. ebazpena arte.

## **10.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

## **11.-JOSE MANUEL OSCOZ ITURRIA JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDU ESKAERA.**

Jose Manuel Oscoz Iturria jaunak Arantxumantxo alderdian dauden pinuen aprobetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 204. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Manuel Oscoz Iturria jaunak eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskatera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

## **12.- PILAR LARRECHEA ERRANDONEA ANDREA: HERRIKO KALEA OKUPATZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Pilar Larrechea Errandonea andreak aurkeztutako idatzia, Goiko Karrikan, uztaila eta abuztuan mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena eskatuz. Halaber bertze ostatuaren altzariak bereizteko eskatu du ontzi edo hasia jartzeko baimena.

Ikusirik indarrean dagoen bide publikoko eta herri lurretako zoru, hegaldura eta zorupeko probetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Kontuan hartuz helburua espaloiak ez okupatzea dela, bizilagunei segurtasun leku bat ematea, eta ibilgailuak ibiltzeko arazorik ez izatea ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Pilar Larrechea Errandonea andreari uztaila eta abuztuko hilabeteetan Udalak markatuko duen tokian mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena ematea, indarrean dagoen ordenantzaren arabera dagokion prezio publikoa ordaintzeko baldintza pean (hileko 30 euro/ml).

2) Pilar Larrechea Errandonea andreari eskatutako ontzia edo hesia jartzeko baimenik ez ematea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimena baldintzatua dagoela trafikoa ez oztopatzera, espaloia eta kalea beti libre uztera, bizilagunek eta ibilgailuek oztoporik izan ez dezaten ibiltzeko.

4) Eskatzaileari jakinaraztea espaloia ez okupatzea bere ardura eta kontrola dela; hori ez betetzea isuna ekarriko luke.

5) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

6) Ebazpen hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Mentxu Peña Lizarazu and.

